

Gaur duela 30 urte erail zuen ertzaintzak Juan Calvo Azabal

JULEN ORBEA BEREIKUA :: 20/08/2023

Juan Calvo hil zen Arkautiko komisarian, Ertzaintzak torturatu ostean

Ertzaintzaren eskuetan heriotzaraino torturatua izan zenetik 30 urte pasatu dira. 1993ko abuztuaren 19an taxi bat lapurtu zuen bere hirian, Bilbon. Ertzaintza atzetik izan zuen, helikoptero bat eta guzti mobilizatu zuten, Araban atxilotua izan zen arte. Arkautira eramana, biharamunean egoera arraro baino arraroagoan hil zen. Juan Calvo Azabalek 42 urte zituen. Bertsio ofizialak aipatzen zuen bere buruari kalte egin ziola eta «laguntzen saiatzen ari ziren ertzainei eraso egin eta gero» nerbio-hauste baten ondorioz zorabio bat izan zuela, baina Herri Batasunak, Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta torturaren aurkako taldeek istorio hori zalantzan jarri zuten hasieratik.

Bilbotarraren gorpuari egindako autopsiak agerian utzi zituen gorputzean 22 ubeldura, makilakadek eragindako 35 marka, barrabiletan ubeldurak, buruko bi zauri, hainbat urradura eta gorputz osoan zehar banatutako beste arrasto batzuk. Horrekin batera, ertzainek erabili zituzten gasen ondorioz heriotza itotzearen ondorioz gertatu zela nabarmendu zuten mediku forentseek. Santiago Ospitaletik igorritako informazioa publikatu zuen *Egin* egunkariak. Calvo ziega txiki batean sartu eta behin eta berriz kolpatu zutela frogatu zuten.

Elkarri, Eusko Alkartasuna eta Euskadiko Ezkerra ere batu ziren azalpen eske. Hilabete adierazpenik egin gabe egon ondoren, Juan Mari Atutxa orduko Lakuako Herrizaingo sailburua, behartua izan zen azalpenak ematera. Ertzaintzako agenteek indarra erabili izana justifikatzeko agerraldia egin zuen Parlamentuan, eta, haren ustez, «atxilotuak konortea galdu zuen nerbio-krisi bortitz bat izan eta lagundu nahi zioten ertzainei eraso egin ostean». Agenteen lan «zuzena» aipatu zuen. Oraindik ere hotzikarak sortzen dituzten gezurrak.

Atxiloketa hark ez zuen inolako kutsu politikorik, eta, gerora jakin zenez, ertzainak gupidagabe aritu ziren atxilotuarekin. Bertsio ofizialaren arabera, bilbotarra itota hil zen Arkautiko polizia basean, baina Ertzaintzaren gutxienez zortzi agente inputatuta egon arren, gehienak absolbitu egin zituzten, eta ertzainen komandanteek ez zuten ezarritako kartzela zigorra bete beharrik izan. Sei urteko kartzela zigorra ezarri zieten, «arduragabekeria profesionalaren delitua» egotzita. 1996ko urtarrilaren 30ean Espainiako Auzitegi Gorenak urtebeteko kartzelara murriztu zuen Gasteizko Auzitegiak ezarritako zigorra, eta, beraz, ez zuten poliziarik kartzelara bidali.

Ertzaintzako bederatzi agente eta komandanteren artean Juan Calvo atxilotu, torturatu eta erail zuten, eta agenteetako batek epaiketan «terrorismoaren susmagarri batekin nahastu genuen» esateko ausardia izan zuen, hilketa zitalki justifikatu nahian.

Bilboko gizona hil ostean sortu zen zalaparta politikoaren ondorioz, Espainiako Gobernuak Ministerio Publikoaren eta Espainiako Justiziaren hainbat dokumenturen kopiak bidali zizkien nazioarteko hainbat erakunderi, tartean NBEko Torturaren aurkako errelatorea,

Calvoren aurkako indarkeria erabiltzea justifikatuz.

2007ko Aste Nagusian, abuztuaren 20an, Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) antolaturiko omenaldia burutu zen. Calvo hil zuten pertsona berberak haren omenaldia eragotzi nahi izan zuten, baina 1993an Arkautiko basean hil zen Juan Calvo Azabal bilbotarra gogoratu zuten ehunka lagunek. Azken hamarkadetan torturatutako milaka euskal herritar biltzen zituen taldeak bere konpromisoa bikoiztu zuen «egia osoa ezagutzea» lortzeko.

Aurtengo uztailaren 4an, *Argia* aldizkarian, Zigor Olabarria Oleaga kazetariak kasuaren inguruko informazio eta testigantza berriak argitaratu zituen. Hemen informazio osoa:

Nola eta zergatik hil zuten Juan Calvo Ertzaintzaren komisarian? (argia.eus)

<https://eh.lahaine.org/gaur-duela-30-urte-erail>